

aitzari

LAUKIZ eta MARURI-JATABEKO EUSKARA ZERBITZUA

2010eko urria • 29 zenbakia



IKASTURTE BERRIA

GURE NAGUSIAK



Gure nagusiak, gure aitite-amamak bizi-bizi dagoz. Urtean zehar ekintza piloa egiten dituzte Jatabemendi elkarte eta Udalaren bitartez, horregatik merezia dute aurten jaso dituzten omenaldi biak.

Alde batetik, San Lorentzo jaietan, aitite-amamak izan baitira aurten gure pregoilariak. Horretarako, herriko guztien artean bikotea aukeratu zen: Santi Renteria eta Mari Egia. Honekin batera, herriko umeei eskatu zitzaie beraien aitite-amamei esku-titza ala marrazkia egiteko, haiengandik egunero jasotzen duten guztia nolabait eskertzeko asmoz. Jasotako eskutitzen artean bat aukeratu – Nagore Iglesias-ek idatzitakoa hain zuzen- eta jaien hasieran irakurri zuen berak. Benetan omenaldi hunkigarria denontzat.

Bestetik eta ohikoa denez, Santa Kurtze dela eta, 80 urte bete dituzten herriko auzokoei zazpigarren

omenaldia izan genuen aurreko irailaren 12an. Bertikolez, meza ostean Ibai-Ondo Erretegian elkartu ginen bazkari ederraz gozatzeko, Udalak 65 urtetik gorakoak bazkaltzera gonbidatu zituen eta. Aurten 109 lagun elkartu gara.

Bazkaldu ostean, ez ziren opariak falta. 2010ean Maruri-Jataben 80 urte bete dituztenek Alkatearengandik omenaldi honen oroigarria jaso zuten: Bonifacio Alzaga, Jose Luis Bilbao, Antonio Chamorro, Daniel Díez, M^a Nieves Eguia, Fernando Eguia, Pilar Erkoreka eta Alejo Garay.

Honetaz gain, beste guztien artean 10 opari bantzeko zozketa egin zen.

Bukaeran, bertaratutakoen desioa datorren urtean berriro ere danok elkartu ahal izatea izan zen.



EUSKARA LIBURUTEGIRA II

Hirugarren urtez jadanik Laukizen eta bigarrenez Maruri-Jataben, irailean hasi da berriro "Euskara liburutegira" programaren bigarren zatia. Programa honek euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzea du helburu nagusia, baina bide batez liburutegia topaleku bihurtzea eta ume, gazte zein nagusi liburutegira hurbiltzea lortu nahi da. **Hemendik gogoratu nahi dizuegu familia osoak parte hartze-ko ekintzak direla** (ez umeak bakarrik).

Irailetik abendura izango ditugun ekintzak bai Laukizen, bai Maruri-Jataben, honakoak izango dira:

- Akordeoi liburua. Marrazkiak egiteaz gain, ipuinak

idatziko dituzte, liburu-akordeoi bat eginez.

- Txotxongiloak. Atzamarretan sartzeko txotxongi-loetaz baliaturik ipuinak kontatuko ditugu.

- Kultura ezberdinei buruzko ipuinak. Beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ederra!

- Gabonetako tailerra eta istorioak. Iaz elurrezko malutak zituzten poteak egin genituen, aurten berriz sorpresa ezberdinak.

Gogoratu ekintza hauek, hilean behin egiten direla arratsaldeko 5etan Laukiz eta Maruri-Jatabeko liburutegietan (Begiratu azken orrian noiz izango den hurrengoa).



ZORIONAK GAZTEDI!!

Laukizko Gaztedi soka tira taldeak urrezko domina ekarri dau 600kg talde mistoagaz Hego Afrikako mundialetik. Lehenengoz egiten zen honelako Txapelketa Mundiala mistoa eta ofiziala, beraz, esperientzia moduan primerakoa izan da. Talde partehartzaileek, guztien aurka egin zuten tira. Gero lehenengo lauen artean finalerdia Holandako talde baten kontra, eta amaitzeko irabazle suertatu zen Gaztedi Ingalaterrako talde baten aurka.

Gaztedi txapeldun!

Laukizko Udala eta herriaren partez


ZORIONAK ETA AURRERA!



MARURI-JATABEKO JAIAK



2010



LAUKIZKO JAIAK 2010



XII MARURI-JATABEKO

HERRI IBILALDIA



Hamabi urte pasa dira jadanik lehenengo edizioa martxan jarri zenean Felipe Alzagaren eskutik. Gaur egun ere, berak eta lagun talde batek urtero urtero pentsatu eta prestatzen dute bidea ahalik eta erakargarriena izan dadin. Urtero leku eta paraje ezberdinak baina ezin esan zein izan daitekeen politena.

Irailaren 12an, domeka. Zortzi eta erdiak inguruan Jatabeko aparkalekua jendez beteta zegoen aurtengo bideari ekiteko prest. Lehenengo kilometroak, lehenengo aldapak igon eta jeitsi ondoren, Markaida errepidera hurbiltzen hasi ziren partaideak sagarrak, ura eta oparia jasotzeko. Amaitzeko, beti bezala, hamaiketakoa denontzat Mailuki tabernan: txistorra eta saltxitxak ez ziren falta!

Hirugarren urtez txikienek beraien gurasoek lagundurik, izan zuten bere ibilalditxoa: Udaletxetik irten Elexpururaino sagarra eta ura hartzeko. Aurrera jarraitu zuten Urrutitik eta Lekunbarritik, igerilekuen atzeko aldean agertzeko eta handik Mailuki Tabernaraino.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu era bate-tik ala bestetik guztia antolatzen eta prestatzen lagundu zigutenei.

Datorren urtean gehiago!

DONJE, ABADIA BAINO GEHIAGO

Irailaren 12an egun samina izan zen Laukiz, Gatika eta Maruri-Jataberako. Hainbat urtetan abadia izandakoa gure artetik joan zitzaigun betiko. Gizon aparta, zintzoa eta esan beharrekoa aurpegira esaten zuena. Euskalzale amorratua (ez zuen barkatzen euskara jakitea eta ez mintzatzea), mendizalea eta txinrrindularizalea. Gaurko gazteek ondo gogoratzen dute txangoak egitera eramaten zituzenean, herritik ateratzeko baliabiderik eta ohiturarik ez zegoenean.

Gizon berezia benetan: hil baino lehen bere "oroigarria" eginda utzi zigun (honekin batera doana) berak idatzitakoa, berak prestatutakoa... heriotza eguna jartzea baino ez zen falta...



JESUS MARI ETXEBARRIA LEGINAGOIKOA

Zeueña izan naz bizi nazela,
oin be zeueña nozue,
samin-agurrak alboratuta
irribarre egizue.

1941 - 04 - 10 - 2010 - 09 - 12

Goian bego Donje

SARTU ZEURE HISTORIAN!

Urtero bezala eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, urria ondarearen hilabete bihurtzen da, Ondarearen Europako Jardunaldiak egingo baitira. Aurten Laukiz (lehenengoz) eta Maruri-Jatabek (bigarren aldiz) parte hartzen dute programa honetan. Bietan bisita gidatuak egingo dira eta Laukizen baserri batean nola bizi izaten den, zernolako produktuak dauden soloan etabar ikusiko ditugun bitartean, Maruri-Jataben, izenaren inguruan aritzeaz gain, San Lorentzo Eliza eta Santa Kurtze eta baselizaren historia txikia eta herriko aintzineko lanbideak azalduko dira. Jataben, Garaizar errota ikusten amaituko dugu. Aldizkariaren azken orrian zein egunetan izango den bakoitza agertuko da eta gogoratu BEHAR-BEHARREZKOA dela izena ematea ondoko telefonoan: 94.615.66.12 (Jata Ondo).

Gure herrietan badago zer erakutsi!



AGENDA

Laukiz

Urriak 23: Ondarearen Europako Jardunaldiak: "Baserrri batean bizitzea". Lauaxeta enparantzan hasi eta Laukizko baserrri zaharretako bat (Iketza) bisitatuko dugu. Erreserba egitea beharrezkoa da honako telefonoan: 94.615.66.12 (Jata Ondo)

Azaroak 14 LORE JOKOAK Egun osoan Plazan frontoian...

Azaroak 21 Bertso afaria

Azaroan ere zine emanaldia izango dugu Atxipen.

**ERNE EGON ETXERA HELTZEN
ZAIZUEN INFORMAZIOARI!!!!**

Maruri-Jatabe

Urriak 23: Ondarearen Europako Jardunaldiak: "Maruritik Jatabera". Elizan hasiko gara udalerriaren izena azalduz, jarraian Eliza eta Sta Kurtze basilizararen inguruan arituko gara. Amaitzeko Garaizar errota bisitatuko dugu Jatabeko aintzineko lanbideak azaltzen ditugun bitartean. Erreserba egitea beharrezkoa da honako telefonoan: 94.615.66.12 (Jata Ondo)

Azaroan eta abenduan zine emanaldiak eta Magia izango ditugu Kultur Etxean.

Azaroak 27, Bertso afaria

**ERNE EGON ETXERA HELTZEN
ZAIZUEN INFORMAZIOARI!!!!**

LIBURUTEGIKO EKINTZAK

Laukiz	Maruri-Jatabe
Urriak 15	Urriak 22
Azaroak 12	Azaroak 19
Abenduak 3	Abenduak 10
<p>Saio guztiak liburutegian izango dira arratsaldeko 17.00etan OHARRA: Ekintza hauek ume eta gurasoei zuzenduta daude PARTE HARTU!!</p>	

ABESTU GEUGAZ

ERRIBERA (Benito Lertxundi)

Erribera, Erribera,
zure landen zabalera
ortzi muga den hartan
mugutzen da.

Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko al ditu
lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten antzina
hats tristetan mintzo da
haren mina.

Horma zahar arraituetan
txoriak dira kantatzen
mendetako lo geldia
salatzen.

Nafarroa anai zaharra
kondairaren lehen sustarra
bego higan arbasoen
amets hura.

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

Marian Cisneros
Maria Fernández
Enif Garcia
Litri
Urtzi Ostolozaga
Saioa Sanz



MARURI-JATABEKO
UDALA



LAUKIZKO
UDALA



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



eskara bizberritzeko plan nagusia
plan general de promoción del uso del euskara



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA